



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek babesa eskatu dabe Bizkaiko meatzaldeko paisajerako eta Galeako gotorlekurako

Bilbon, 2014ko urriaren 8an.

Bizkaiko Talde Popularrak (PP) aho bateko laguntzea aurkitu dau Bizkaiko “meatzaldeko paisajea” eta Galeako itsasargia eta gotorlekua babesteko eskaria eginez aurkeztu dituan bi proposamenetan. Azken horren kasuan, popularrek babesa “preminaz” egitea eskatu dabe, “70eko hamarkadatik bertan behera itxita dagoan” moltso arkitektonikoaren artapen egoera txarra dala eta.

Holan, Batzarretako taldeak ados jarri dira gaur Kultura eta Euskerako Batzordean, Galeako (Getxo) itsasargia eta gotorlekua “preminaz” kultur intereseko ondasun izendatzeko espedientea zabaldu daian eskatzeko Eusko Jaurlaritzari, euren artapen egoera “penagarria” kontuan izanda. Arturo Aldecoaren (PP) eretziz, adierazpen hori ez dago kontrajarrita Eusko Jaurlaritzak “defentsako elementu garaikideei” buruz egin behar dauen azterlanagaz. Horreen artean egongo litzateke Bizkaiko Golkora begiratzen dauen gotorlekua.

Modu berean, PP taldeak talde guztien aldeko eretxia aurkitu dau, Trapaga, Abanto eta Zierbena, Zierbena, Urtuella, Muskiz, Barakaldo, Alonsotegi, Gueñes, Galdames eta Sopuertako udalerrietako eremuek osatutako Bizkaiko Meatzaldeko Paisajea “Monumentu Multzo” izendatzeko.

DONE JAKUE BIDEA BIZKAIAN

Bizkaiko Batzar Nagusietako talde guztiek bat egin dabe, 2015eko lehenengo seihilekoan, Done Jakue bidea Bizkaian berreskuratzeko urtebetez haraindiko Osotasunezko Plana atondu eta aurkeztu daian eskatzeko Foru Aldundiari, parte hartu gura daben udalen, beste administrazioen eta erakunde pribaduen eta publikoen parte hartzea ahalbideratuz. Ekimena aurkeztu dauen Aldecoa popularrak defendidu dauen ideia, datozen sei urteetan gure lurraldetik doan bide hori berreskuratzea da, Bizkaian daukazan adar guztietan, trazaua, zorua, pasabideak eta igarobideak egokituz eta errimesei laguntza eskintzeko azpiegiturez horniduz, barnealdeko ibilpideak daukan maila bera euki daian.

ZUGAZTIETAKO ATERPETXEKO KIROL-KANTXAREN ERABILEREA

Saioa, EH Bildu taldeak Trapagako Zugaztieta auzoan dagoan eta Aldundiarena dan aterpetxeko kirol-kantxari buruz aurkeztu dauen arauz besteko proposamenagaz hasi da. Proposamen horri, ia gauza bera defendiduten eban PP taldearen beste ekimen bat gehitu jako: Trapagako auzo horretako biztanleek kirol-kantxa hori erabili ahal izatea. Ekimen biek aurrera egin dabe, kontrako botorik jaso barik.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Biztanleen artean kirol instalazioaren erabilera bultzatzeko, neguko arratsaldeetan batez be, EH Bilduk eskaerea egin deutso Aldundiari, kantxaren argiztapen artifiziala bermatuko daben neurriak bideratu daizan, hori “barrutik” baino ezin dalako kontrolau. Bizkaiko Talde Popularrak (PP) be bat egin dau eskari horregaz, baina bere ekimenaren bitartez. Ekimen horretan, aterpetxea itxita, eta inor barik dagoanean, argien kostuaz eta kontrolaz Trapagako Udala arduratzea eskatzen da.

AZKEN TEKNOLOGIEN ERABILPENA

Batzordeak aho batez onartu dau PP-k aurkeztutako arauz besteko proposamena, Aldundiari “kamera multiespektralak” erabiltea bultzatu daijala eskatzeko, “gaur egun ikustezinak” diran antxinako margoak erregistretako eta dokumentetako, kobazuloetan, arkeologia aztarnategietan, eleizetan eta eraikinetan. EAJ-PNV-ko Ana Esther Furundarena batzordekideak, Foru Aldundiko Kultur Ondare Zerbitzuko teknikariak “aspalditik” ari dirala teknika horreek erabilten jakinarazo deutso PP-ri. “2007an eta 2008an daborduko erabili ziran Santimamiñeko kobazuloetan”, gogoratu dau.

PROPOSAMEN BAZTERTUA

Beste alde batetik, popularrek azkenean baztertu egin dabe Aldundiari Meatzalde Goikoa Kultur Elkarteari Trapagako Zugaztietan dagozan foru lurretan “eskulturen parkea” kudeatzeko emondako baimena ez barrizteko eskaera eginez aurkeztu behar eben arauz besteko proposamena, Jon Sánchez EAJ-PNV-ko ordezkariak “denpora apur bat gehiago” eskatu ostean, Aldundiak urtenbidea aurkitu daian, “hainbat hilebetetan” negoziatan ibili eta gero aldean artean “akordio eta adostasun zabala dagoalako”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Juntas Generales pide protección para el paisaje minero de Bizkaia y el fuerte de la Galea

En Bilbao, a 8 de octubre de 2014.

El grupo Popular Vizcaíno (PP) ha encontrado un apoyo unánime a dos proposiciones no de norma suyas en las que solicita protección para el “paisaje minero” de Bizkaia y el faro y fuerte de la Galea. En el caso de este último, los populares han solicitado que esta protección se realice de manera “urgente” debido al delicado estado de conservación de un conjunto arquitectónico que permanece “abandonado desde los años 70”.

En concreto, todos los grupos junteros se han puesto de acuerdo hoy en la comisión de Cultura y Euskera de las Juntas Generales para que se solicite al Gobierno Vasco el inicio de un expediente de declaración como bien de interés cultural “con urgencia” del faro y fuerte de la Galea (Getxo) debido al “penoso” estado de conservación. A juicio de Arturo Aldecoa (PP), esta declaración no es incompatible con un estudio de los “elementos defensivos contemporáneos” que el Gobierno Vasco va a realizar, entre los que estaría incluida la fortaleza que mira al mar Cantábrico.

De igual forma, el PP ha encontrado unanimidad en la comisión a otra iniciativa suya para solicitar al Gobierno Vasco incoar otro expediente de declaración como “Conjunto Monumental” del paisaje minero de Bizkaia que estaría integrado por áreas de los municipios de "Trapaga, Abanto y Ciervana, Zierbena, Ortuella, Muskiz, Barakaldo, Alonsotegi, Gueñes, Galdames y Sopena”.

CAMINO DE SANTIAGO EN BIZKAIA

El parlamento de Bizkaia se ha unido sin fisuras de cara a que la Diputación Foral presente en el primer semestre de 2015 un Plan Integral plurianual de recuperación y puesta en valor del Camino de Santiago en Bizkaia con la participación de los ayuntamientos y otras administraciones y entidades privadas y públicas que quieran sumarse. La idea defendida por el proponente de la iniciativa, el popular Aldecoa, es que "en seis años" se pueda recuperar el camino que discurre por el Territorio en sus diferentes ramales vizcaínos, con obras de acondicionamiento, señalización y puntos de apoyo al peregrino, para elevarlo al mismo nivel que el recorrido del interior.

USO DE LA CANCHA DEPORTIVA DEL ALBERGUE DE LA ARBOLEDA

La sesión ha arrancado con una Proposición No de Norma presentada por el grupo juntero EH Bildu sobre la cancha deportiva del albergue de La Arboleda propiedad de la Diputación, a la que se ha sumado otra iniciativa del PP que defendía prácticamente lo mismo : el uso de la misma por los vecinos de este barrio de Trapagarán. Las dos iniciativas han prosperado sin ningún voto en contra.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

De cara a potenciar su uso entre los vecinos, especialmente las tardes de invierno, EH Bildu ha reclamado que la Diputación arbitre medidas para garantizar la iluminación artificial de la cancha, algo que sólo se puede controlar “desde el interior”. El grupo Popular Vizcaíno (PP) se ha unido también a esta petición con su propia iniciativa en la cual piden que sea el ayuntamiento de Trapagaran el que se haga cargo del coste y control de las luces cuando el albergue esté cerrado y sin ocupación.

USO DE LAS ÚLTIMAS TECNOLOGÍAS

La comisión ha aprobado por unanimidad una proposición No de Norma presentada por el PP por la que se solicita a la Diputación Foral la incorporación del uso de “cámaras multiespectrales” para el registro y documentación de antiguas pinturas, “hoy invisibles”, en cuevas, yacimientos arqueológicos, templos y edificios. La apoderada del PNV, Ana Esther Furundarena, ha advertido al PP que los técnicos del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación están utilizando estas técnicas “desde hace mucho tiempo”. “Se utilizaron ya en las cuevas de Santimamiñe en los años 2007 y 2008”, ha recordado.

PROPOSICIÓN RETIRADA

Por otro lado, los populares han retirado finalmente una proposición no de norma que pedía a la Diputación que no renovase el acuerdo suscrito con Meatzalde Goikoa Kultur Elkarte para gestionar el “parque de esculturas” de La Arboleda, después de que el representante del PNV, Jon Sánchez, le haya reclamado un “poco más de tiempo” para que la institución foral busque una salida, ya que “existe un acuerdo y consenso amplio” entre las partes después de “varios meses” de negociaciones.